



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urtarrilaren 15a

3. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektua. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-garraioari buruzko arauak alda ditzan, landa-eremuetatik ikastetxeetara joan ahal izatea bermatzeko. María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztu du (17. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Dekretua indargabetu dezan. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (18. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektua.**

### *ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2018ko irailaren 6ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

#### **1. ZUZENKETA**

##### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Lehen artikuluari lehen apartatuaren aurrekoa gehitzeko zuzenketa.

“Legearen xedea, eragin-eremua eta edukia.

1. Foru lege honen xedea da ezartzea zein diren Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioaren berrantolaketa agindu behar duten oinarriak, betiere printzipio hauekin bat: subsidiaritatea, eskumenen argitasuna, nahikotasun eta iraunkortasun finantzarioa, aurrekontu-egonkortasuna, lurralde-elkartasuna eta toki-autonomia, lurralde-oreka eta koordinazioa interes publikoen kudeaketan herritarren konfiantza lortze aldera.

2. “Eskumenen argitasuna” horrela ulertuko da: toki entitateek, horrela dagoelako zehaztuta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legean, Foruaren Hobekuntzan, Toki Administrazioari buruzko Foru Legean eta foru lege honetan bertan, nahitaez bete behar dituzten zerbitzuen eta eginkizun politiko eta administratiboaren definizio zehatza.

3. “Nahikotasun finantzarioaren” printzipioa honela ulertuko da: gaitasun ekonomikoa izatea toki entitate bati betetzea dagozkion eskumen guztiak, bai eta eskuordetuta hartu dituen esku-

men guztiak ere, zuzen emateko egin beharreko gastuari modu egokian aurre egiteko.

4. Foru lege honek Nafarroako toki entitateen egitura berria ezartzeko mekanismoak planteatzen ditu, bai eta egitura hori osorik eta erabat inplantatzeko prozedurak eta programazioa ere, eta horrek erkidegorako “toki mapa” berria taxutzea dakar berekin.»

Zioak: Beharrezkoa iruditzen zaigu legearen hasieran zehaztea legearen xedea,eragin-eremua eta edukia, bai eta kontzeptu pare bat azaltzea, zeinak baitira eskumen-argitasuna eta nahikotasun finantzarioa; izan ere, printzipio horiek ezinbestekoak dira Administrazioaren erreforma hau gauzatu ahal izateko.

#### **2. ZUZENKETA**

##### **UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Lehen artikuluari bi bis apartatua gehitzeko zuzenketa. Horren bidez 6/1990 Foru Legearen 29. artikulua aldatzen da. Hona testua:

“Nafarroako udalerriek legeria orokorrak Estatu udalerrri guztiei aitortzen dizkien eskumen, ahalmen eta prerrogatibak izanen dituzte.

Halaber, Nafarroari dagozkion eskumenetan, Foru Komunitateko legeek esleitzen dizkietenak ere izanen dituzte.

Nafarroako Gobernuak, legez berak gauzatu beharrekoak diren eskumenak toki entitateei eskuordetzen dizkienean, eskumen horien finantzaketa osoa bermatu beharko du”.

Zioak: Gure ustez, finantzaketa erreforma honen gakoetako bat da, eta beharrezkoa da ziurtatzea Nafarroako Gobernuak toki entitateei eskuordetzen dizkien eskumenei behar duten finantzaketa izanen dutela Gobernuaren aldetik toki entitateek haiek egikaritu ahal izateko.

### 3. ZUZENKETA

#### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen artikuluko bi ter apartatua gehitzeko zuzenketa, non Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 30. artikulua aldatzen baita. Hona testu berria:

“30. artikulua.

1. Foru Komunitateko Administrazioak toki enteei eskuordetu ahalko diete, Estatuko oinarrizko legerian ezarritakoarekin bat, beren interesak ukitzen dituzten gaietako eskumenez baliatzea, betiere baldintza hauekin: horren bidez kudeaketa publikoaren efizientzia eta eraginkortasuna nahiz zerbitzuak emateko modua hobetzea, administrazio bikoizteak kentzeko lagungarria izatea, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeriarekin bat etortzea, eta herritarrek afera publikoetan parte-hartze handiagoa izan dezaten laguntzea. Eskuordetzeko erabakiak haren eragin-eremua, edukia, baldintzak eta iraupena zehaztu beharko ditu, bai eta eskuordetzea egiten duen Administrazioak beretako gordetzen duen kontrola, zerbitzuak nola betetzen diren kontrolatu eta zuzentzeko ahalmenak, eta, halakorik dagoenean, eskualdatzen dituen giza baliabideak eta bitarteko material eta ekonomikoak. Kasu guztietan, eskuordetzeak atxikirik izanen du eskuordetutako zerbitzua edo zerbitzuak osorik emateko behar adinako finantzaketa ere; horretarako, eskuordetzea egiten duen administrazioak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako dituen aurrekontuetan zuzkidura egon beharko da, behar bestekoa eta egokia.

2. Toki entitateek elkarren artean eskuordetu ahalko dituzte berekoak dituzten eskumenen egikaritzea edo eman behar dituzten zerbitzuen kudeaketa. Eskuordetzeko erabakiak haren eragin-eremua, edukia, baldintzak eta iraupena zehaztu beharko ditu, bai eta eskuordetzea egiten duen Administrazioak beretako gordetzen duen kontrola, eta, halakorik dagoenean, eskualdatzen dituen giza baliabideak eta bitarteko material eta ekonomikoak; kasu guztietan, eskuordetzeak atxikirik izanen du behar adinako finantzaketaren eskuordetzea ere, aurreko idatz-zatian ezarri bezala.

3. Eskuordetzea eraginkorra izateko, eskuordetzearen hartzaile den toki entitatearen onarpena beharko da betiere”.

Zioak: Gure ustez, eskumenen eskuordetzeak aintzat hartu behar du kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta efizientzia eta, batez ere,

eskuordetzen diren zerbitzuen ematea hobetu behar du. Gainera, eskuordetzeak argia izan behar du eskualdatzen diren zerbitzu, giza baliabide, baliabide material eta ekonomikoei dagokierik, eskuordeturiko zerbitzua emateko beharrezkoa den finantzaketarekin batera, eta, batez ere, eskuordetzearen hartzailea den toki entitatearen onspena izan behar du.

### 4. ZUZENKETA

#### GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua hemeretzi apartatua – Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa (212. artikulua. Partzuergoak)– aldatzeko zuzenketa. Hona hemen testua:

“212. artikulua. Partzuergoak

1. Toki entitateek zilegi izanen dute bestelako administrazio publiko batzuekin partzuergoak eratztea interes amankomuneko xedeetarako, edo toki administrazioen interesekin bat datozen interes publikoko xedeak dauzkaten elkarte, fundazio edo entitate pribatuekin.

2. Partzuergo horiek berezko nortasun juridikoa eta beren helburuak betetzeko ahalmen osoa duten entitate publikotzat joko dira. Beren eskumeneko zerbitzuak ematen ahalko dituzte toki araubideko legerian aurreikusitako edozein bide erabiliz. Partzuergoa eratzeko, beharrezkoa izanen da aurretiazko udalekotze-tramitea, partzuergoaren xedea denean tramite horri loturiko zerbitzu edo jarduerak eman edo egitea.

3. Aurreko bi apartatuetan xedatutakoari jarraikiz tankeratutako partzuergo bakoitza bere gobernu organo gorenean boto kopuru handiena duen administrazio publikoari atxikiko zaio aurrekontu ekitaldi bakoitzean.

Administrazio batek baino gehiagok boto kopuru bera dutenean, berdinketa kasuetarako kalitateko botoa duena hautatuko da. Halakorik ezean, artaturiko bizilagun gehien edo lurralde zabalena duen administrazioari atxikiko zaio, partzuergoaren estatutuetan definitutako xedea zein den; hots, pertsonen zerbitzuak ematea edo lurraldearen gaineko jarduketak garatzea.

4. Partzuergoaren estatutuek, onetsi aurretik, jendaurrean egon beharko dute hamabost egu-

nez, eta zehaztu beharko dute partzuergoaren araubide organikoa, funtzionala eta finantzariora, bai eta helburuak ere.

5. Nazioarteko partzuergoen kasuan, gaiari buruz Estatuko legerian xedatutakoari jarraituko zaio”.

Zioak: 212. artikulua idazkera Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 118. artikuluan eta ondokoetan oinarritzko izaeraz ezarritakoari egokitzen zaio, halako moduz non segurtatuko baita Administrazio Publiko bati atxikiko zaizkiola bai toki entitateen eta beste izaera bateko administrazio publikoen artean eraturako partzuergoak, bai toki administrazioen xedeekin bat datozen interes publikoko xedeak bilatzen dituzten elkarte, fundazio edo entitate pribatuen artean eraturakoak ere.

## 5. ZUZENKETA

### **GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua hemeretzigarren apartatua –Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa (213. artikulua. Plangintza orokorrerako mankomunitateak)– aldatzeko zuzenketa. Hona hemen testua:

“213. artikulua. Plangintza orokorrerako mankomunitateak.

1. Nafarroako toki entitateak eta Foru Komunitateko Administrazioa plangintza orokorrerako mankomunitate gisa eratu ahalko dira, toki eskumeneko zerbitzuen ematea koordinatzeko, aplikatzea den legeriak administrazio hari aipatu eginez nahitaezko gisa esleitzen dionean.

2. Koordinazioaren xede den gaiari erreparatuta, hartan parte hartuko dute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, eskualdeek eta 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek; hartan sartu ahalko dira, halaber, 20.000 biztanle baino gehiagokoak izan eta hala eskatzen duten udalerriak.

3. Foru lege bidez, zerga arloko ikuskaritzan, diru-bilketan eta kudeaketan eskumenak esleitzen ahal zaizkio plangintza orokorrerako mankomunitateari, dauzkan eginkizunei eta, kasua bada, ematen dituen zerbitzuei dagozkienak.

4. Plangintza orokorrerako mankomunitateek nortasun eta gaitasun juridikoa dute beren xede espezifikokoak betetzeko, eta beren estatutu propioak dauzkate arau.

5. Plangintza orokorrerako mankomunitate bat sortzeko eta haren lurralde-esparrua zehazteko ekimena Foru Komunitateko Administrazioarena izan da, toki eskumeneko zenbait zerbitzuen ematea koordinatzeko dauzkan ahalmenen indarrez.

6. Aurreko apartatuan aipatzen den ekimena Nafarroako Gobernuaren erabakiz abiatuko da. Dagokion erabakia hartuta, Toki Administrazioaren arloko departamentu eskudunak hura plangintza orokorrerako mankomunitateko kide izan diren toki entitate guztiei bidaliko die, bidezkotzat jotzen dituzten alegazio, eragozpen eta oharra aurkez ditzaten hura jaso eta bi hilabeteko epean, norbere gobernu-organo gorenak hartutako erabakiaren bidez, eta estatutuak egiteko prozesurako ordezkari bat hauta dezaten.

Toki entitateak epe horretan ez badu erabakirik hartzen edo erabakirik jakinarazten, ulertuko da ez duela eragozpenik plangintza orokorrerako mankomunitatean sartzeko.

Aipatutako epea iraganda, Nafarroako Gobernuak, erabaki bidez, kasuan-kasuan aurkeztu diren alegazioak ebatziko ditu, eta plangintza orokorrerako mankomunitatearen estatutu-proiektua idatziko duen Batzordeko kide izan diren Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen ordezkariak hautatuko ditu.

7. Plangintza orokorrerako mankomunitateen estatutuak egiterakoan honako arau hauek beteko dira:

Lehen. Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak eta hartan sartu behar duten toki entitateen ordezkari banak osatutako batzorde batek hasierako proiektu bat egingen du, aurreko apartatuan xedatutakoari jarraituz.

Baldin eta kasuan kasuko koordinazioaren xede den zerbitzua toki entitateek udalez gaindiko toki entitate bati esleitura badago, eta eskualdeak eratzen ez diren bitartean, toki entitate horien ordezkariak udalez gaindiko entitateko buruak izan da, edo hark eskuordetutako pertsonak.

Bigarrena. Proiektua hilabetez jarriko da jendaurrean Nafarroak Interneten duen gobernu irekiaren atarian eta plangintza orokorrerako mankomunitatea osatu behar duten toki entitateen idazkaritzetan, kasuan kasuko iragarki-oholetan aurrez iragarkia jarrita.

Hirugarrena. Kasua bada, aipatutako baztordeak ebatziko ditu jendaurreko fasean aurkeztu diren alegazio, eragozpen edo oharrak, eta estatutuen behin betiko proiektua eginen da.

Laugarrena. Estatutuak Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez onetsiko dira.

Bosgarrena. Estatutuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematea.

8. Estatutuen aldaketari aplikatuko zaizkio haien onespenerako ezarritako arau berak, 1. eta 3. arauetan aurreikusitako jarduketak izan ezik; izan ere, horiek plangintza orokorrerako mankomunitatearen gobernu-organo gorenak eginen ditu.

9. Plangintza orokorrerako mankomunitatea desegiteko hura sortzeari buruz artikulua honetan ezarritako arau berak bete beharko dira, lurralde-eremua zehazteari dagokiona eta toki entitateen ordezkariak izendatzeari buruz egindako aurreikuspenak izan ezik.

10. Estatutuak onetsi eta plangintza orokorrerako mankomunitatea eratu ondoren, plangintza orokorrerako mankomunitatean parte hartzen duten toki entitateek, guztien artean, gobernu-organo gorenean botoen gehiengoa edukiko dute beti. Gobernu-organo hori Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak eta mankomunitateko entitateen ordezkariak osatuko dute.

11. Plangintza orokorrerako mankomunitateen gobernu-organoek edukiko dituzte estatutuek ematen dizkieten eskudantziak. Nolanahi ere, Bartzarrak edo entitatearen organo gorenak udaletan osoko bilkurari dagozkion eskudantziak edukiko dituzte.

12. Plangintza orokorrerako mankomunitateek, oro har, beren berariazko idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak izanen dituzte, Nafarroako Foru Komunitatearen gaikuntza dutenak.

13. Beren eskumeneko zerbitzuak ematen ahalko dituzte, bai eta elkartutako entitateek esleitzen dizkietenak ere, toki araubideko legerian aurreikusitako edozein bide erabiliz.

14. Nafarroako Gobernuak sustatuko du plangintza orokorrerako mankomunitateak sor daitezela, foru lege honen 367. artikuluan eskualdeetarako aurreikusitakoaren arabera”.

Zioak: Plangintza orokorrerako mankomunitateen erregulazioa osatzen da, Nafarroako Kontseiluak egindako oharrei jarraituz. Sartutako aldaketa, bereziki, honako hauei dagozkie:

a. Zehazten da toki entitateek eta Foru Komunitateko Administrazioak parte hartutako toki entitateak direla, Foru Komunitateko Administrazioak tokiko eskumeneko zerbitzuak koordina ditzan araudiak mankomunitateari nahitaezko koordinazio- eta lankidetz-eginkizun bat esleitzen dien kasuetan; horren adibidea izan daitezke hondakinen, ur-horniduraren edo gizarte zerbitzuen arloko zerbitzuak.

b. Estatutuak sortzeko eta haiek lantzeko prozeduraren ekimena zehazten da.

c. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean xedatutakoarekin bat, toki entitate hori sortzen da, eta bera izanen da Foru Komunitateko Administrazioak berak, oinarriko araudiaren bidez, aipatutako koordinazioaren pean jarritako toki eskumeneko zerbitzuen koordinazioaz arduratuko dena, 20.000 biztanletik beherako udalerrietan; eskualdeen eskumen propioen kasuan, berriz, ezartzen da plangintza orokorrerako mankomunitate horretan sartu beharrekoak direla, Nafarroako Gobernuak hala erabakiz gero.

d. Argitzen da nortasun eta gaitasun juridiko erabatekoa dutela beren xedeak betetzeko, eta beren estatutu propioak edukiko dituztela.

e. Zehazten da, halaber, haien gobernuko goi-organoak entitate mankomunitateen (Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta toki entitateak) ordezkariak eduki beharko duela.

f. Orobat, apartatu berri bat sartzen da, plangintza orokorrerako mankomunitateetan idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako lanpostu propio berariazkoak egon daitezkeen, Nafarroako Foru Komunitatearen gaikuntza beharko dutenak.

## 6. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

234. artikulua 2. apartatuko a) letraren lehen artikulua hongoigarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testua izanen du:

“Foru lege honen 243.2 a) eta 244.2 a) artikuluetan aurreikusitako eskualdeetan, ohiturazko elkarteetan, plangintza orokorrerako mankomunitateetan, lanpostu espezifikoa duten mankomunitateetan eta udaletan, eginkizun horiek kasuko toki entitatearen langile propioek beteko dituzte.

Berriazko lanpostu propiorik ez duten udaletan, idazkaritza edo kontu-hartzaitzako eginkizun publikoak kasuko eskualdearen langile propioek beteko dituzte, foru lege honen 361.1 e) artikuluko 1. apartatua ezarritakoarekin bat”.

Zioak: Apartatu honetan zenbait arau egokitzen dira plangintza orokorrerako mankomunitateetan idazkaritzako eta kontu-hartzaitzako lanpostu propio berriazkoak egoteari, Nafarroako Foru Komunitatearen gaikuntza beharko dutenak.

## 7. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehen artikulua hongoita hirugarren apartatua (243. artikulua 2. apartatua) aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“2. Honako hauetan egonen da idazkari-lanpostu propio espezifikoak:

a) 1.500 bizilagun edo gehiago dituzten udalerrietan, foru lege honetako 361.1.e) artikuluan xedatutakoa ukatu gabe bizilagun gutxiago izanik ere hala erabakitzen duten udalerrietarako, arau horretan ezarritakoarekin bat.

b) Eskualdeetan.

c) Lanpostu espezifikoak duten mankomunitateetan.

d) Ohiturazko elkarteetan, baldin eta hala badago xedatuta haien erregelamendu, ordenantza, hitzarmen, akordio, epai edo itunetan.

e) Plangintza orokorrerako mankomunitateak”.

Zioak: Araua egokitzen zaio plangintza orokorrerako mankomunitateetan idazkaritzako eta kontu-hartzaitzako lanpostu propio berriazkoak izateari, 213. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

## 8. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua hongoita laugarren apartatuaren 2. puntua, 6/1990 Foru Legearen

244. artikulua, aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“2. Kontu-hartzaile lanpostua nahitaez izan beharko dute honako hauetan:

a) 3.000 bizilagun edo gehiago dituzten udalerrietan, ezertan galarazi gabe beren plantilla organikoan lanpostu hori sortua duten 2.000 biztanle baino gehiagoko udalerriei dagokienetz foru lege honen 361.1.e) artikuluan xedatutakoa, aipatutako arauan ezarritakoarekin bat.

b) Ohiturazko elkarteetan, hala badago xedatuta haien erregelamendu, ordenantza, hitzarmen, akordio, epai edo itunetan, baldin eta azken bost urteetan urteko izan duten gastu arrunta hiru milioi euro baino gehiagokoa izan bada.

c) Eskualdeetan.

d) Plangintza orokorrerako mankomunitateetan”.

Zioak: Araua egokitzen zaio plangintza orokorrerako mankomunitateetan idazkaritzako eta kontu-hartzaitzako lanpostu propio berriazkoak izateari, 213. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

## 9. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehen artikulua hongoita hamabosgarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

«Hongoita hamabost. 337. artikuluko 1. apartatua aldatzen da eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“337. artikulua.

1. 333. artikulua 1. zenbakiaren b) paragrafoan aipatzen den gora jotzeko errekurtsioa aurrerakoa eta doakoa izanen da eta, jartzekotan, Nafarroako Administrazio Auzitegian jarriko da.

Gora jotzeko errekurtsioa jartzeko epea hilabeteak izanen da, egintza espresua bada. Espresua ez bada, errekurtsioa edozein unetan jartzen ahalko da, araudi espezifikoaren arabera administrazio-isiltasunaren eraginak gertatu diren egunaren biharamunetik aurrera. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren legeriaren arabera jardura administratiboa aurkara daitekeen gainerako kasuetan, jurisdikzio horri zein egunetan aurkeztu

ahal zaion errekurtsioa, egun horretatik aurrera edozein momentutan aurkeztu ahalko da errekurtsioa»».

Zioak: Araua egokitzea 333. artikuluan xedutakoari eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren legeari. Bai foru legearen, bai foru lege proiektuaren egungo idazketaren arabera, soilik erregulatuta dago gora jotzeko errekurtsioa aurkeztea administrazio-isiltasunaren bidezko egintza espresuen eta ustezko egintzen aurka. Hala eta guztiz ere, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren legearen arabera (eta, horrenbestez, Nafarroako Administrazio Auzitegian) gaur egun aurkaratu daitekeen jarduera administratiboan barruan sartzen dira, halaber, Administrazioaren jarduera-eza eta izatezko bideak; hori dela eta, haiek aipatu egin behar dira, segurtasun juridikoa izate aldera.

## 10. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehen artikulua hogeita hamazazpigarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

«Hogeita hamazazpi. 340. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“340. artikulua.

1. Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak betearaztea dagokio errekurtsioaren xede den jarduketa egin duen toki entitateko organoari.

2. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Administrazio Auzitegiak eskatuta, aipatu ebazpenak subsidiarioki betearazteko egoki dena xedatzen ahalko du, baita betearazpena ahalbidetzen duten eskumenetan automatikoki subrogatzea eta beharrezkoak diren funts ekonomikoak eskura jartzea ere»».

Zioak: Foru lege proiektuak, irizpide egokia erabiliz, 333. artikuluan, “egintza eta erabakiak” hitzen ordez, “jarduera administratiboa” hitzak erabiltzen ditu, legeria orokorrari egokitzeko, zeren eta horrek, gaur egun, aukera ematen baitu egintzak eta erabakiak ez ezik jarduerarik eza edo izatezko bide administratiboa ere aurkaratzeko. Horrekin bat etortze aldera, aldaketa bera egin beharko litzateke 340. artikuluan.

## 11. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua hogeita hemezortzigarren apartatua –Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa (354.5. artikulua)– aldatzeko zuzenketa. Hona hemen testua:

“5. Eskualde guztiak sortzeko prozesua amaituta, Nafarroako udal guztiak horietako batean sarturik egon beharko dute”.

Zioak: Nafarroako Kontseiluaren Irizpeneko gomendioari jarraituz.

## 12. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehen artikulua hogeita hemezortzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 357. artikulua 1. apartatuaren laugarren paragrafoaren testuan eta 2. apartatuan, “Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako /2018 Foru Legearen lehen xedapen iragankorrean zehazten den eskualde-zedarriketa” esan ordez honako hau esan beharko du: “Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legearen lehen xedapen iragankorrean zehaztutako eskualde-zedarriketa”.

Zioak: Araugintzako teknika hobetzea.

## 13. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua bi hogeita hemezortzigarren apartatua –Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa (357.2. artikulua)– aldatzeko zuzenketa; “urtebeteko epean” hitzen ordez honako hauek erabiliko dira: “hemezortzi hilabeteko epean”.

Zioak: Foru lege proiektu honen onespenerako aurreikusita dagoen atzerapena dela eta, eta kontuan hartuta 2019. urtea toki entitateetan hauteskunde-urtea izanen dela, komenigarria da bermatzea toki entitate horiek hamabi hilabeteko epe baliokidea eduki ahalko dutela, proiektuaren jatorrizko idazkeran aurreikusi zen bezala, eskualde baten sorrera-prozesua abiatu ahal izateko, Gobernua ekimenaz baliatu baino lehen, baldin eta ukitutako udalak aurrez hartaz baliatu ez badira.

#### 14. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehen artikulua hogeita hemezortzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 358. artikulua 2. apartatuaren lehen paragrafoaren testuan, “Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako /2018 Foru Legearen Lehen Xedapen Iragankorrean zehazten den eskualde-zedarriketaren arabera” esan ordez, honako hau esan beharko da: “lehen xedapen iragankorrean egindako lurralde-zedarriketaren arabera Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legearen lehen xedapen iragankorrean zehaztutako eskualde-zedarriketa”.

Zioak: Araugintzako teknika hobetzea.

#### 15. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua hogeita hemezortzigarren apartatuaren bigarren paragrafoa –Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa (360.2. artikulua)– kentzeko zuzenketa.

Zioak: Beste zuzenketa batean sindikatuek Eskualdeko Batzorde Teknikoan dituzten ordezkarrien parte-hartzea aldatzen da; horrek aukera emanen du zuzenean ezagutzeko hark, etorkizuneko eskualdeko langileak direla eta, bere baitan hartzen dituen erabakiak zuzenean ezagutzeko;

hori dela eta, 360. artikulua horren bigarren apartatua errepikapen hutsa izanen litzateke.

#### 16. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua hogeita hemezortzigarren apartatua –Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa (360.1. artikulua, bigarren paragrafoa)– aldatzeko zuzenketa. Hona hemen testua:

“Ukitutako langileen ordezkarrien hautaketa – gehienez, lau pertsona izanen dira– eginen da langileen ordezkarrien organo, langileen delegatu, langileen batzorde eta enpresa-komiteetarako hauteskundeetan izandako emaitzen arabera edozein toki entitate, erakunde edo haien menpeko enpresa publikotan kasuko eskualdearen esparruan ordezkaritza lortu duten sindikatu-erakundeek proposatuta. Baldin eta esparru horretan ordezkaritza duten lau sindikatu-erakunde baino gehiago badaude, ordezkaritzaren hautaketa eginen da eskualde-esparru horretan lortutako ordezkarri kopuruaren arabera, eta ordezkaritza handiena lortu duten lau sindikatu-erakundeei egokituko zaie”.

Zioak: Bermatu nahi da kasuko Eskualdeko Batzorde Teknikoan ordezkatuta egon daitezela eskualdearen sorrerak ukitutako langileen ordezkariek. Horretarako, ezartzen da langile horien ordezkaritza lau ordezkarik osa dezatela. Ordezkarri horiek kasuko eskualdeko toki entitateetan ordezkaritza duten sindikatu-erakundeek izendatuko dituzte. Ordezkaritza duten sindikatu-erakundeak lau baino gehiago badira, ordezkariek izanen dituzte ordezkaritza-hurrenkerari jarraituz portzentaje handiena duten lauek.

#### 17. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehen artikulua hogeita hemezortzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Toki Administra-



zioari buruzko Foru Legearen 360. artikulua 3. apartatuaren b) letraren testua honela idatzita gedituko da:

“b) Azpieskualdeen eraketa, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legearen lehen xedapen iragankorrean aurreikusitako eskualde-zedarraketan ezartzen diren kasuetan, eta foru lege honen 369. artikuluan adierazitakoa-ekin bat”.

Zioak: Araugintzako teknika hobetzea.

## 18. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua hogeita hemezortzigarren apartatua –Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa (361.1.d) artikulua)– aldatzeko zuzenketa. Hona hemen testua:

“d) Eskualde-plangintza eta eskualde-mailako lurralde-antolamenduko tresnen kudeaketa, aplikatzeko den araudiarekin bat, oinarrizko legeriak udalerrientzat erreserbatutako eskumenak ezertan galarazi gabe”.

Zioak: Nafarroako Kontseiluak egindako oharra jasotzen da, eta salbuespen hori biltzen da aipatutako arlorako eskualdeko eskumen propioa dela eta, betiere, gainerako eskumenei kasuan bezala, Estatuko oinarrizko araudiak udalarentzat erreserbatutako eskumenei eutsiz.

## 19. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehen artikulua hogeita hemezortzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 361. artikulua 1. apartatuaren e) letraren bosgarren, bederatzigarren, hamaikagarren eta hamabigarren paragrafoen testuan, “Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako /2018 Foru Legeak indarra hartzen duen egunean” esan ordez, honako hau esan beharko da: “Nafarroako Toki Administra-

zioaren Erreformatarako Foru Legeak indarra hartzen duen egunean”.

Zioak: Araugintzako teknika hobetzea.

## 20. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehen artikulua hogeita zortzigarren apartatuari (362.2 artikulua) gehiketa egiteko zuzenketa. Honela geratuko da idatzita:

“Administrazio elektronikoaren ezarpen eta mantentze-lanetan laguntzea” apartatuari honako testu hau gehitzea: “Bereziki, gardentasun-atariak sortu eta kudeatzea”.

Zioak: Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak ezartzen dizkien publizitate aktiboko betebeharrak bete behar dituzten toki entitateen aipatzeko moduko kopuru bat entitate txikiak dira, egitura murrizta dutenak. Entitate horiek, behar diren baliabide ekonomiko eta teknikoak ez dituztenez, ez dute Administrazioaren (udalaren zein kontzejuren) egoitza elektronikorik edo web-orririk sortu; hori dela eta, ia ezinezkoa da ez gaur egun, ez etorkizunean ere, gardentasunaren atari bat sortu eta mantendu ahal izatea. Hori dela eta, beharrezko gertatzen da kide diren eskualdeko laguntza izan dezatela, eta laguntza hori gardentasunaren atariak edukitzera bideratzea, halakoak nahitaez sortu eta mantendu beharrekoak baitira.

## 21. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehen artikulua hogeita hemezortzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 369. artikulua 1. apartatuaren testuan, “Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako /2018 Foru Legearen Lehen Xedapen Iragankorrean jasotzen diren eskualde-zedarraketan” esan ordez, honako hau esan beharko da: “Nafarroako Toki Administra-

zioaren Erreformarako Foru Legearen lehen xedapen iragankorrean zehaztutako eskualde-zedarraketan”.

Zioak: Araugintzako teknika hobetzea.

## 22. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua hogeita hemezortzigarren apartatua –Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen aldaketa (371.6. artikulua, bigarren paragrafoa)– aldatzeko zuzenketa. Hona hemen testua:

“6. Era berean, aplikatzekoa den araudiarekin bat, eskualdeak neurriak hartuko ditu enplegu publikoan aldi baterako lanpostuen kopurua murrizteko eta plantillaren egonkortasuna sendotzeko, eta sektore pribaturako joera honako kasu hauetara mugatuko du:

- langileen beharrezan ez-iraunkorretara,
- ohikoak ez diren jarduerak egin behar diren kasuetara,
- beren berezitasun teknikoagatik edo beste edozein arrazoiengatik langile propioekin egiterik ez dagoen jardueretara”.

Zioak: Hobekuntza tekniko bat da, zerbitzu publikoak emateko sektore pribatura jotzeko kasuak mugatzeari dagokionez.

## 23. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lehen artikulua hogeita hemezortzigarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 374. artikulua 2. apartatuaren bigarren paragrafoaren testua hone-l idatzita geldituko da:

“Batzarreko kideak hautatzeko, haren sorrerari buruzko foru legean besterik xedatzen ez bada,

hautaketa-sistema misto bati jarraituko zaio, erre-gela hauen arabera:”

Zioak: Ez da baztertu behar eskualde baterako edo batzuetarako, beren ezaugarriak direla eta, Batzarreko kideak izendatzeko beste sistema bat erabiltzea, baldin dagokion eskualdeko udal gehienek hala eskatzen badute.

## 24. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa; honako testu hau izanen du:

“Foru lege honen 110. artikulua 1. apartatuan ezarritakoa garatuz, Nafarroako toki entitate-ek ahaleginak egin behar dituzte, berreskuratze aldera Hipoteka Legearen 206. artikulua babesean eta artikulua hori 13/2015 Legearen bidez aldatu arte immatrikulatutako ondarea (ekainaren 24ko 13/2015 Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 1946ko otsailaren 8ko Dekretuaren bidez onetsitako Hipoteka Legea eta martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Higiezinaren Katastroaren Legearen testu batekina)”.

Zioak: Helburua da zehaztea ezen, beren ondareko ondasun eta eskubideak zaindu, aldeztu, berreskuratu eta hobetzeko Nafarroako toki entitateek daukaten eginbeharrari dagokionez, beste eginbehar baten modura hartu beharko litzatekeela ia soilik Eliza Katolikoak immatrikulatu duen ondarea berreskuratzea; izan ere, immatrikulazio horiek egin dira jada indargabetuta dagoen arau baten babesean eta, horrenbestez, arau-bermea eman behar zaie bide horretan entitate horiek egiten dituzten jarduketari.

Eliza Katolikoak higiezinak, baita jabari publikoak ere, bere izenean erregistratzerakoan izan dituen pribilegioak 1946ko lege batetik datoz, eta 1998an zabaldu ziren, orduan aukera eman baitzitzaien baita gurtza-tenpluak immatrikulatzeko ere; Hipoteka Legearen azken erreformarekin, 13/2005 Legearen bidez egindakoarekin, ordea, betiko bertan behera utzi ziren pribilegio horiek.

**25. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Bigarren artikulua hiru garren apartatua aldatzeko zuzenketa. Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 123. artikulua 1. apartatuaren a) letraren testuan, "Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako /2018 Foru Legearen zortzigarren xedapen iragankorrean" esan ordez, honako hau esan beharko da: "Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legearen zortzigarren xedapen iragankorrean".

Zioak: Araugintzako teknika hobetzea.

**26. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen bigarren artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Zortzigarren apartatua gehitzen da.

«Zortzi. Seigarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“Seigarren xedapen gehigarria.

Plangintza orokorrerako mankomunitateak, eskualdeak eta mankomunitateak, bai eta haiek beren helburuak betetzeko sortutako entitate juridikoak ere, salbuetsita egonen dira haien kide diren udal eta kontzejuek ordainarazten dituzten tributuetatik”».

Zioak: Horrela, bermatzen da eskualdeak – mankomunitateak eta haiek sortutako entitateak bezala –, salbuetsita egonen direla haiek osatzen dituzten udal eta kontzejuek ordainarazten dituzten tributuetatik.

**27. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bakarra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Xedapen gehigarri bakarra.

Iruñerriko Bidaia-garraio Erregularri buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legean Iruñerriko Mankomunitateaz egiten diren aipamenak Iruñerriko Eskualdeari dagozkiola ulertuko da, behin eskualde hori eratu ondoren”.

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko, proposatzen da proiektuan “Arga” deitzen zaion eskualdeak bere deitura tradizionalari euts diezaiola: “Comarca de Pamplona-Iruñeko Eskualdea”. Proposatutako aldaketa ez da beharrezkoa, eta artifiziosua da.

**28. ZUZENKETA**

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Nafarroako toki entitateek beren borondatez erabaki ahalko dute, horietako batzuen artean edo Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa horretarako eskuordetuz, haietan ordezkariak duten –bai funtzionarioen artean, bai lan-kontratupeko langileen artean– sindikatu-erakundeekin negoziazio-esparru sektorial bat ezartzea, berekin ekarriko duena Nafarroako toki administrazioen negoziazio mahai orokor bateratu bat eratzea”.

Zioak: Tokiko autonomia eta arlo honetan toki entitateek dauzkaten eskumenak errespetatuta, toki entitate guztientzat modu boluntarioan sartu nahi da Nafarroako Toki Administrazioen Mahai Orokor Bakarra sortzeko aukera, haren barruan langileen, funtzionarioen zein lan-araubidekoen, lan-baldintzei buruzko akordioak lortu ahal izateko entitate horietan ordezkariak duten sindikatu-erakundeekin, halako moduz non sektoreko langile guztien lan-baldintzak negoziatu ahalko baitira, toki administrazioetan lan egiten duten pertsona

guztiei gutxieneko baldintza duin batzuk bermatze aldera. Horretarako, toki entitateak eta sindikatu-erakundeak ados jarri beharko dira, Mahai horretan dagokien ordezkariak elkarrizkatzeko, bai eta balizko erabakietatik etor litezkeen ondorio juridikoak aitortzeko ere, toki entitateek "haiek ezartzeri dagokionez". Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren baitan erabaki ahalko da erakunde horrek modu kolektiboan ordezkari ditzala negoziazio kolektiboa berariaz haren esku uzten duten entitateak.

## 29. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Erreformarako foru legearen bigarren xedapen iragankorraren amaieran apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

"Baldin eta Batzorde Probintzialen eta Eremuetakoen agintaldia amaitu bada, aurreko paragrafoek aipatzen dituzten eginkizunak Hauteskunde Batzorde Nagusiak beteko ditu".

Zioak: Nafarroako Kontseiluaren Irizpeneko oharrei jarraituz; izan ere, Batzorde Probintzialen eta Eremuetakoen agintaldia hauteskundeak egin eta ehun egunera bukatzen da.

## 30. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Lege proiektuaren hirugarren xedapen iragankorraren amaieran beste apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

"1.500 biztanle baino gehiago izan eta foru lege honek indarra hartzen duen egunean zerbitzu administratiboen batasunen batean parte hartzen duten udalerrien kasuan, idazkaritzako edo/eta kontu-hartzailetzako nahitaezko eginkizun publikoak ematen jarraituko dute, hartan parte hartzen duten 1.500 biztanle baino gutxiagoko toki entitateetan, populazio handiagoko udalerririk aipatuetan lanpostu horiek betetzen dituztenek, harik eta kasuko eskualdea eratzen den arte; une horretatik aurrera, berriz, foru lege honen laugarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoaren arabera jokatu da".

Zioak: Hirugarren xedapen iragankorrari azken apartatu hori gehituz, erregulatu egiten da 1.500 biztanle baino gehiago dituen udalen batek eta populazio txikiagoa duen beste batek edo beste batzuek osatuta dauden egungo zerbitzu administratiboen batasunen kasua.

Foru lege proiektuak ezartzen du idazkaritzako lanpostu propio berariazkoa egonen dela 1.500 biztanletik gorako udaletan, eta populazio txikiagoa izan eta foru lege proiektuan bertan jasotako baldintzak betetzen ez dituztenen kasuan, berriz, eskualdearen zerbitzuko langileek emanen dituztela nahitaezkoak diren eginkizun publiko horiek.

Kasu horretan, eta eskualdeak eratzen ez diren arte, ezartzen da ezen 1.500 biztanletik beherako toki entitate horietan, nahitaezkoak diren idazkaritzako edo/eta kontu-hartzailetzako eginkizun publikoak ematen jarraituko duela foru lege proiektuaren arabera lanpostu propioa edukiko duen udalean eginkizun horiek betetzen dituen langileak, dagokion eskualdea eratzen ez den bitartean; une horretan, izan ere, laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera hornitu beharko da lanpostua.

## 31. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Foru lege proiektuaren laugarren xedapen iragankorraren lehenengo paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

"Kasuko eskualdeak sortzeko bosgarren foru legea onesten denetik hiru hilabeteko epean, eta, nolana ere, foru lege honek indarra hartu eta hiru urteko gehieneko epean, Foru Komunitateko Administrazioak behar diren jarduketak eginen ditu Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 247.1 artikuluan aurreikusitako merezimendu lehiaketaren deialdia egiteko, arau horren 247.2 eta 247.3 artikuluetan sartuta eta hutsik dauden idazkari lanpostuak betetzeko, legearen 245. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat. Eraginkortasun administratiboko arrazoiak tarteko, eta aipatutako foru legearen 252. artikuluan ezarritakoarekin bat, jabetza hartzeko data finkoa Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen beraren 245. artikuluan aurreikusitako gaikuntza eskuratu dutenentzat ezarritako bera izanen da".

Zioak: Toki entitateetan zerbitzuak ematen dituzten langile guztien –funtzionarioen zein behin-behinekoen– interes guztiak bateragarri egin ahal izateko, beste epe bat ezarri da eskualdeak –bost bitarte– sortzeari buruzko foru legeak onesteari dagokionez, 6/1990 Foru Legearen 247.1 artikuluan aurreikusitako merezimendu-lehiaketaren prozedura abian jartzeko. Nolanahi ere, eta prozesu horren hasiera egiazko data bati buruzkoa izan dadin, ezarri da ezen, nolanahi ere, gehieneko epea laburragoa izan ahalko dela baldin eta eskualdeak sortzeari buruzko bost foru lege horiek onesten badira.

### 32. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Foru lege proiektuaren laugarren xedapen iragankorrari hirugarren paragrafoa gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera egiten den lehenengo deialdia ez da inolaz ere onetsiko artikulua honen beraren 1. apartatuak aipatzen duen merezimendu lehiaketa amaitzen denetik urtebete iragan baino lehenago”.

Zioak: Toki entitateetan, idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako lanpostuetan, zerbitzuak ematen dituzten langile guztien –funtzionarioen zein behin-behinekoen– interes guztiak bateragarri egin ahal izateko aurkeztutako beste zuzenketa batekin lotuta, eta haren osagarri.

### 33. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Foru lege proiektuaren bosgarren xedapen iragankorrari bigarren paragrafoa gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Lehiaketa ebatzi eta sei hilabeteko epean, B mailako gaikuntza izan baina A mailako titulazioa duten funtzionarioek betetzen dituzten B mailako kontu-hartzaile lanpostuak A mailan kokatuko dira, Enplegu Publikoaren Estatutuaren 15.6 artikulua- ren babesean, B mailako gaikuntza izan baina A

mailako titulazioa duten funtzionario horientzat soilik izanen diren hautaprobentz bitartez”.

Zioak: Helburua da konponbidea ematea B mailako gaikuntza izan baina A mailako titulazioa duten kontu-hartzaile funtzionarioen arazoari, xedapen iragankor honetan aurreikusitako birko- kapenaren ondoretarako.

### 34. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Foru lege proiektuaren bosgarren xedapen iragankorraren bigarren paragrafoa (hirugarren paragrafo berria) aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Lehiaketa hori ebatzi ondoren eta koadratzea egin ondoren, horretan bete ez diren lanpostuak A mailan birsailekatuko dira, eta Foru Komunitateko Administrazioak deitu beharko du 247. artikuluan aipatzen den merezimendu lehiaketa, 6/1990 Foru Legearen 247.2 eta 247.3 artikuluetan sartuta egonda hutsik dauden kontu-hartzaile lanpostu guztiak betetzeko, lege horren 245. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat”.

Zioak: Xedapen iragankor honetan bigarren paragrafo bat sortzen duen zuzenketaren bidezko irtenbidearekin koherentzia izateko; horren bidez, konponbidea eman nahi zaie B mailan gaituta dauden baina A mailako titulazioa duten kontu-hartzaile funtzionarioen arazoari, xedapen iragankor honetan aurreikusitako birko- kapenaren ondoretarako.

### 35. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Foru lege proiektuaren zortzigarren xedapen iragankorraren lehen apartatua aldatzeko zuzenketa. “2019ko iraila baino lehen” hitzen orde- z, honako hauek erabiliko dira:

“2019ko abenduaren 31 baino lehen”.

Zioak: Foru lege proiektu honen onespenerako aurreikusita dagoen atzerapena dela eta, eta kon- tuan hartuta 2019. urtea toki entitateetan hautes-

kunde-urtea izanen dela, komenigarria da bermatzea bai foru gobernua, bai toki entitateek ahal den epe luzeena daukatela finantzaketa-eredu berri bat adosteko, zuzenketa aurkeztu zaion xedapen iragankorrean ezarritako baldintzetan.

### 36. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Beste xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Foru lege honek indarra hartzen duenean lurraren gaineko kontribuzioaren tasa Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 139. artikuluan ezarritako gutxienezko behera duten udalerriek, foru lege honen bigarren artikuluan bosgarren zenbakian ezarritako terminoetan, bost urteko epea izanen dute tasa igotzeko, aipatutako 139. artikuluan ezarritako tartean kokatu arte”.

Zioak: Ezarritako kargaren gutxienezko tasa igotzeak eta, horrekin batera, balorazio-txostenetako gaurkotzearen egoera askotarikoak, bai eta haiek foru lege proiektuan ezarritako epeetan ez gaurkotzeagatik aurreikusitako zigorrek ere, presio fiskala gehiegi handitzea ekar dezakete, edo zergadunei herrien arabera tratatu desberdina ematea. Xedapen iragankor berriak tasak direla-eta behar den igoera graduatu nahi du, haiek tarte berri batean kokatzeko, balorazio-txosten gaurkotuetan aplikatzeko moduko aldi batean, hartara desberdintasun-egoerak saihesteko.

### 37. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Erreformarako foru legeari beste xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen lehen xedapen iragankorraren 1. apartatuan ezarritako epeak, hondakinen ente publikoa sortzekoak, foru

lege honek indarra hartzen duen dataren erreferentzia izanen du. Aipatutako xedapenaren edukiaren gainerakoak indarra izaten jarraituko du harik eta, kasua bada, Nafarroako hiri hondakinen tratamendurako egungo partzuergoa ordeztu duen plangintza orokorrerako mankomunitatea eratzen den arte”.

Zioak: Foru lege proiektu honen onespenerako aurreikusita dagoen atzerapena dela eta, ezin izanen da bete Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian ezarritako epea –sei hilekoa, 2018ko ekainaren 23ko foru lege horrek indarra hartzen zuenetik–, Nafarroako Gobernuak Nafarroako hiri hondakinen tratamendurako egungo partzuergoaren ordeztuko ente publikoa sor dezan sustatzeari dagokionez. Hori dela eta, beste epe bat ezarri beharra dago; horretaz gainera, jada zehaztuta dago hura zein toki entitate motak –plangintza orokorrerako mankomunitateak– ordeztuko duen, bai eta halakoak eratzeko prozedura ere.

### 38. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA  
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetako bigarrena aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen du:

“Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2020ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra”.

Zioak: Lege hau, onesten bada ere, ezin izanen da abian jarri legegintzaldi honetan. Horrenbestez, ezinbestekoa iruditzen zaigu hurrengo maiatzeko hauteskundeetatik sortzen den gobernuak denbora nahikoa izatea legea aztertu eta abian jartzea prestatzeko.

### 39. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

I. eranskina aldatzeko zuzenketa. Honako aldaketa hauek sartzen dira:

Honako hau dioen tokian:

Eskualdea: "Arga".

Azpieskualdea: "Iruñeko Azpieskualdea"

Honako hau esan behar du:

Eskualdea: "Pamplona/Iruña".

Azpieskualdea: "Metropolialdea".

Zioak: Proposatzen da proiektuan "Arga" deitzen zaion eskualdeak bere deitura tradizionalari euts diezaiola: "Comarca de Pamplona-Iruñeko Eskualdea". Aldi berean, proposatzen da eskualde horrek dauzkan bi azpieskualdeek "Metropolialdea" eta "Ibarrak" izenak hartzea, beren errealitate geografikoari askoz hobeki egokitzen baitzaizkio.

#### 40. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

I. eranskina aldatzeko zuzenketa. Honako aldaketa hauek sartzen dira:

Honako hau dioen tokian:

Eskualdea: "Ega"

Azpieskualdea: "Montejurra-Juramendi"

Honako hau esan behar du:

Eskualdea: "Tierra Estella-Lizarraldea":

Azpieskualdea: "Montejurra-Juramendi".

Zioak: Proposatzen da proiektuan "Ega" deitzen zaion eskualdeak bere deitura tradizionalari euts diezaiola: "Tierra Estella-Lizarraldea".

#### 41. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

II. eranskineko koadroa aldatzeko zuzenketa. Honako aldaketa hauek sartzen dira:

"Arga" dioen tokian, "Pamplona-Iruña" esan behar du.

"Ega" dioen tokian, "Tierra Estella-Lizarraldea" esan behar du.

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko, proposatzen da proiektuan "Arga" deitzen

zaion eskualdeak bere deitura tradizionalari euts diezaiola: "Comarca de Pamplona-Iruñerriko Eskualdea", eta "Ega" deitzen zaion eskualdeak bere deitura tradizionalari euts diezaiola: "Tierra Estella-Lizarraldea".

#### 42. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

III. eranskinaren mapa aldatzeko zuzenketa. Honako aldaketa hauek sartzen dira:

"Arga" dioen tokian, "Pamplona-Iruña" esan behar du.

"Iruñeko Azpieskualdea" dioen tokian, "Metropolialdea" esan behar du.

"Ega" dioen tokian, "Tierra Estella-Lizarraldea" esan behar du.

Zioak: Beste zuzenketa batzuekin bat etortzeko, proposatzen da proiektuan "Arga" deitzen zaion eskualdeak bere deitura tradizionalari euts diezaiola: "Comarca de Pamplona-Iruñerriko Eskualdea", eta "Ega" deitzen zaion eskualdeak bere deitura tradizionalari euts diezaiola: "Tierra Estella-Lizarraldea".

#### 43. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA,  
ETA PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI  
TALDE PARLAMENTARIOEK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Zioen azalpenaren zazpigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

"Ikuspegi historiko batetik, azken mendei begiratuta mugari garrantzitsu batzuk bereiz ditzakegu Nafarroako toki-autonomiaren arau-garapenean. Gai horretaz hitz egitean nahitaezkoa da aipatzea 1841eko Lege Itundua eta 1924ko Udal Estatutua, 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege-dekretu Itundua, Estatutu hori Nafarroari aplikatzekoa, edo Nafarroako Udalen Administrazioarako 1928ko Erregelamendua, azken hori Nafarroak bere toki erakundeak arautzeko izan duen esumen historikoaren adierazpena".

Zioak: Ez da egokia 1924ko Udal Estatutua aipatzea, zeinak ez baitzuen Nafarroako foru araubidea jasotzen, harekin batera 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege-dekretua aipatu gabe; izan ere, azken horrek jarraitzen du izaten Foru Komunitateak toki administrazioaren arloan daukan eskumenen oinarrietako bat, eta horrelaxe aipatzen da berariaz Foru Eraentza Berrezari eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan.

---



---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola-garraioari buruzko arauak alda ditzan, landa-eremuetatik ikastetxeetara joan ahal izatea bermatzeko.**

*MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eskola-garraioari buruzko arauak alda ditzan, landa-eremuetatik ikastetxeetara joan ahal izatea bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Esther Korres Bengoetxea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Azken aldian, landa-eremuetako despopulazioaren aurka aritzeko akordioa gero eta handia-

goa da. Fenomeno horrek arrazoi ugari ditu, baina horietako bat da bertako herritarrek oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko duten zailtasuna, eta horrek desabantaila-egoeran jartzen ditu hiri-eremukoak aurrean.

Honi dagokionez, 16 urtetik aurrera ikasten segitzen duten gazteek eskola-garraioaren falta dute. Hau da, adin horretako ia biztanle guztiak, batxilergoko, LHko edo beste batzuetako ikasketak egiten ari dira, eta ez dute eskola-garraiorik zentroetara bertaratzen.

Gainera, garraio publikoaren sareak eskariari behar bezala erantzuten ez dionez, gazte horien gurasoek egunero joan eta etorri egin behar dute herrietatik ikastetxeetara, aparteko denbora eta dirua xahututa.

Hori dela-eta, behean sinatzen duen foru parlamentariak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio eskola garraioaren inguruko araudia aldatzea, eta horrela landa-eremuetatik irakaskuntza-zentroetara eskola-garraioa bermatuko da, gutxienez ikasleek 18 urte bete eta garraioan autonomoak izan daitezkeen arte.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 9an

Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Dekretua indargabetu dezan.**

### *ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Dekretua indargabetu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen dekretua indargabetu dezan.

Gure erkidegoan euskararen erabilera zein den aztertzen duten azken inkestek eta azterlanek ezartzen dute hizkuntza horren erabilera ehunekotan txiki-txiki dela. Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, euskararen erabilera % 6,6koa da; Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako Soziolinguistika Klusterrak egindakoaren arabera, berriz, Nafarroan batez beste % 6,7koa da euskararen erabilera.

Hortaz, Nafarroako Gobernuaren beraren datu objektiboek erakusten dute populazioaren zati oso

minoritario batek baino ez duela erabiltzen euskara Nafarroan.

Eta hala eta guztiz ere, Gobernuak euskararen presentzia –ikusizkoa nahiz komunikazio ofiziale-takoa– areagotu nahi izan du, hainbestearino non dokumentu, komunikazio, seinale, afixa eta publizitate guztia egiten baitira orain ele bitan, euskara gaztelaniaren gainetik edo aurretik jartzeraino. Hori guztia, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 2017ko dekretuari esker. Dekretu horrek nafar gehienak gutxien eta erdeinatzen ditu, gaztelaniadunak baitira.

Gogorarazi beharra dago, nahiz eta ez litzatekeen beharrezkoa izan beharko, euskara ez dela Nafarroa osoan ofiziala. Nafarroako Iparraldeko eremu euskaldunean bakarrik da ofiziala, Foruaren Hobekuntzan argi eta garbi ezartzen denez.

Hortaz, euskara Nafarroako Gobernuaren dokumentu ofizialetan neurri gabe erabiltzea erkidegoaren errealitate soziolinguistikoaren aurka eta legediaren aurka doa; izan ere, gure erkidego-ko arau nagusiak –Foruaren Hobekuntzak– ezartzen du euskara ez dela ofiziala.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen dekretua indargabetu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroaren errealitate soziolinguistikoa errespetatu dezan, 100 nafarretik 7k bakarrik erabiltzen baitute euskara egunerokotan.

Iruñean, 2019ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba



